

# KRISIALDI EKONOMIKOAREN ERAGINA SEKTORE EKONOMIKOAN ETA LAN-SEKTOREAN

## I. AITZINSOLASA

1. Langabezia ageri da Espainiako herritarren lehenengo arazo gisa, lau milioi pertsona baino gehiagok horixe adierazi baitute. 25 urtetik beherakoen kasuan, lan egiteko adinean dauden bi gaztetatik ia bat langabezian dago. Aurrekoari gehitu behar zaio milaka familiak beren kide guztiak langabezian dituztela. Hori dela eta, administrazio publikoek eskaini ahal dizkieten oinarritzko errenten menpean egotera pasatu dira ikuspuntu ekonomikotik, betiere administrazio horiek horretarako behar adina aurrekontu-baliabide baldin badituzte.

2. Egungo egoera ekonomikoak berekin ekarri du pertsona askok ezinezko izatea finantza-entitateekin harturiko zorrei aurre egitea. Egoera hori bereziki larria da ohiko etxebizitza erosteko harturiko hipoteka-kredituen kasuan. Kreditu horiek ez ordaintzeak berekin ekartzen du, batzuetan, etxebizitza galtzea; eta etxebizitza galtzeaz gainera, egoera horretan dauden pertsonen finantza-entitatearekin zorra izaten jarraitzen dute.

3. Krisialdi ekonomikoa are gehiago larritu da diru ofizialarekin banku-sektoreari eman zaizkion laguntzekin espero ziren emaitzak ez lortzearekin; izan ere, laguntza horiek ez dira sektore pribaturaino iritsi baliabideak falta dituztenei laguntza emateko; edo proportzio oso txikian iritsi dira.

4. Espainiako ekonomiaren beste arazo handi bat defizit publikoaren areagotzea da, bai estatuarena, bai autonomia erkidegoena, toki korporazioena eta gainerako entitate publikoena ere. Superabita izatetik defizita izatera iragan da urte gutxi batzuetan.

Defizit publikoak, Estatuaren diru-sarrerak behera joatearekin batera, berekin dakar gizarte ongizatearen estatu-ereduaren ezaugarri diren politika

publikoetarako aurrekontu-sailetan murrizketak egiteko arriskua: guztientzako doako osasun publikoa, hezkuntza, gizarte gaien arloko oinarrizko errentak, langabeziarengatiko prestazioak, erretiroarengatiko pentsioa eta alargun-pentsioak eta ikerketarako eta teknologiarako baliabideak, bai eta inbertsio publikorako eta inbertsio pribatua sustatzeko baliabideak ere.

5. Horri guztiari gehitu behar zaio krisialdi ekonomiko orori lotuta pesimismoaren faktore psikologikoa agertu ohi dela. Pesimismoaren ondorioz, izan ere, herritarrek egoerak okerrera –eta ez onera– egitearen pertzepzioa dauka, nahiz eta zenbait sektoretan egoera onbideratzeari buruzko sintomak positiboak ageri diren. Bestalde, bankuek inbertsiorako kredituak ukatzen dituzte eta enpresentzako abalak gutxitzen dituzte. Enpresaburuek inbertsioei uko egiten diete edo haiek atzeratu egiten dituzte garai hobekak iritsi zain. Horrekin, plantillak edo enpresa-jarduerak gerarazi edo gutxitu egiten dira, eta kontsumitzaileek kontsumoa geldiarazten dute; eta horretarako aukera dutenek aurrezkoa nahiago izaten dute kontsumo haztatua baino. Krisialdi finantzario batean, sistema finantzarioaren fede onarekiko konfiantza ere galtzen da.

## **II. GOGOETAK**

### **Lehena. Estatu sozialaren funtsa zaintzeko beharra.**

Pairatzen ari garen krisialdi ekonomikoak edo haren ondoriozko eraginek ez dituzte zerbitzu publikoak eta estatu sozial, demokratiko eta zuzenbidezkoaren bereizgarri diren eskubideak auzitan jarri behar, horiek 1978ko Espainiako Konstituzioak ezarritakoak baitira.

Espainiak zenbait krisialdi ekonomiko nozitu izan ditu Konstituzioak indarra izan duen hogeita hamar urte luzetan, eta haietatik ateratzen jakin du; eta horretarako modua izan du estatu sozialaren bereizgarri diren prestazio publiko nagusiak arriskuan jarri gabe eta funtsean moztu gabe. Aitzitik, pixkanaka prestazio horiek handitzen joan da. Gizakiaren obra guztiek bezala akatsak dituen arren, estatu sozialak beste edozein estatu-motak baino hobeki bermatzen du premia handiena dutenen defentsa, osasun eta hezkuntza

publikoen aldeko politiken sustapena, gizarte segurantza, ahaztuak edo baztertuak izateko arrisku handiena dutenen aldeko gizarte gaien arloko politikak, langileen eskubideak babesten duten lan arloko legeak eta zerga-sistema zuzen eta progresiboa, besteak beste.

Hori, halere, ez da oztopoa, batetik, estatu soziala eta haren erakundeak hobetu behar izateko, beharrezkotzat jotzen denaren arloan, bidezkoa dena aldatuz, kenduz edo indartuz, hura efizienteagoa izan dadin (emaitza hobea gastu publiko txikiagoarekin) eman behar dituen funtsezko eginkizunetan; eta ez da oztopoa izan, bestetik, hura indartu behar izateko balio handiagoa izan dezan erkidegoaren interes orokorren alde eta hura osatzen duten herritarren eskubideen alde.

Estatu sozialaren defentsa eta estatu horrek berezko duen herritarren eskubideen defentsa botere publiko guztien betebeharra da –bereziki administrazio publikoena–, baina, aldi berean, haiek gainbegiratzen dituzten arartekoen betebeharra ere bada. Konstituzio-eskubideak babestearen ardura duten parlamentuetako goi-ordezkarientzat krisialdiak dakar administrazio publikoen jarduerari buruzko ikuskatzean ahalegin gehigarria egin behar izatea, kontuan izanda arrisku batzuek nabarmen egin dutela gora; besteak beste, gizarte-bazterketarako arriskuak eta zerbitzu publikoen kalitatea gutxitzeko arriskuak.

### **Bigarrena. Administrazio publikoen arteko akordioak.**

Pairatzen ari garena bezalako krisialdi batean –epe ertain eta luzean dauzkan eragin negatiboak direla-eta–, beharrezkoa dirudi administrazioen artean akordioak egitea, neurri efektiboak abian jartzeko krisialdi ekonomikoak eragin txikiagoa izan dezan pertsonen eta kolektibo sozialen eskubideetan. Akordio horiek, aurretik, elkarrizketarako ahalegin bat eskatzen dute, interes publikoa bilatze aldera, eta, era berean, adostasun zabalagoa bilatzea eta ezin gerora daitezkeen neurriak hartzea eskatzen dute. Eta honakoak dira horren guztiaren xedeak: indarrak norabide berean metatzea, garai zailetan batasun

irudi bat helaraztea eta arazo eta erronka handiei helburu berekin eta antzeko konponbideak erabiliz arre egitea.

**Hirugarrena. Administrazio publikoek neurriak hartzea eta jarduerak egitea herritarren, enpresaburuen eta kontsumitzaileen konfiantza pizteko.**

Azaldu dugun bezala, krisialdi ekonomiko orok pesimismoaren elementu psikologikoa ekarri ohi du. Horren aurrean, beharrezkotzat jotzen dugu administrazio publiko eskudunek neurriak susta ditzaten premia handiena duten sektore ekonomikoei pizgarriak emateko eta laguntza eman diezaieten inbertitzeko eta kontsumoa handitzeko; aldi berean, une zailetan, Administrazioarekiko konfiantzazko eta laguntzako mezu bat helarazi behar dute. Premia handiena duten sektore ekonomikoak pizgarriekin bultzatzea eta herritarren segurtasun juridiko handiagoa lagungarri gertatzen dira inbertitzeko eta kontsumoa handitzeko.

**Laugarrena. Laguntza publikoak direla-eta informazio erabilgarria eta eraginkorra eskaintzeko mekanismoak ezartzea.**

Krisialdiaren ondorioak arintzeko laguntza publikoak direla eta, arazo bat sortu da haiek gehiegi ugaltzearen ondorioz eta beste neurri batzuen onespeneren ondorioz haiei behin eta berriz egiten zaizkien berrikuspenen ondorioz, bai eta neurri gehigarri edo osagarriak plazaratzearen ondorioz ere; izan ere, azken horiek batzuetan aurrekoekin kontraesanean daude edo nahastea eragiten diete hartzaile izan daitezkeen pertsoneri.

Ikuspegi horri gehitu behar zaio administrazio desberdinak izaten direla – estatukoak, autonomikoa, foru erkidegokoak eta tokikoak– etengabe neurri berriak onesten dituztenak, itxura batean haien artean inongo koordinaziorik egon gabe eta neurri horiek lehendik onetsitako beste batzuen gainean izan dezaketen erakinari buruzko ebaluaziorik egin gabe, antza denez.

Horregatik guztiagatik, mekanismo edo tresnaren bat ezarri beharko litzateke, zertarako eta krisialdi ekonomikoak ukitutako pertsonentzako, familientzako eta enpresentzako laguntzei buruz dagoen informazio guztia biltzeko eta informazioa eskatzen duten partikularren, erakundeen, elkarteen eta administrazioen eskura jartzeko.

Horri dagokionez, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak erakutsi du prest legokeela onartzeko Arartekoaren irizpidea, alegia, Administrazioak zuzeneko kontrola eduki beharko lukeela funts publikoekin lagundutako maileguren gainean. Horretarako bideratzaile finantzarioaren figura sortu da, ICOk autonomoei eta enpresa txiki eta ertainei laguntzeko tresna gisa; izan ere, bideratzaileak laguntza emanen luke finantziarioa lortzeko kreditu-entitateek haien eskabideak ezetsi dituenean. Horrenbestez, figura horren esku-hartzea indartu beharko litzateke.

### **Bosgarrena. Langabezia dauden pertsonen arreta handiagoa ematea.**

Langabezia dauden pertsonen arreta ematea eta enplegua sustatzea lehentasunezko bi neurri dira egungo krisialdi ekonomikoan.

Langabezia dauden pertsonak egungo krisialdi ekonomikoaren biktima nagusiak dira, eta funtsezkoa da administrazio publikoek haiei laguntza soziala, babesa eta lehentasunezko arreta ematea. Eskubidea dute, bazterkeriarik gabe, kotizaziopeko nahiz kotizaziorik gabeko prestazio publikoa jasotzeko. Izan ere, Estatuako Administrazioak eta erkidegoetako administrazioek ahalegin koordinatu bat egin behar dute prestazio horiei eusteko eta, ahal den neurrian, haiek hobetzeko.

Aurten, Estatuak 34.000 milioi euro erabiliko ditu langabezia finantzatzeko. Gehieneko historiko bat da hori. Zenbateko horretan sartzen dira, esate baterako diru-sarrerarik gabe geratzen diren langabetuentzako Estatuako laguntza, Langabeziagatik edo gizarteratzeagatik aldi baterako babes programan (PRODI) sarturiko subsidioa, edo kontsumituriko babesarengatik

ordaindutako zenbatekoaren itzulketa, enplegu-eten batetik pasa ondoren kaleratzen diren langileentzat.

Estatuko kotizaziopeko prestazioak amaitzen diren unean edo haiek lortzeko ezarritako behar beste baldintza betetzen ez direnean, autonomia erkidegoetako administrazioen “oinarrizko errentak” izenaz ezagutzen direnak sartuko dira jokoan. Horien bidez, izan ere, bermatuko da behar beste baliabide egotea erantzun bat emateko langabezia dagoen pertsonaren bizi-premiei eta, kasua bada, diru-sarrerarik ez badu, haren menpeko familiaren bizi-premiei. Oinarrizko errentaren ordainketa zuzenean egin behar du Administrazioak, ahal bezain azkar, behar gabeko geroratzerik edo bitartekaririk gabe, eta xede duten helburu sozialari lehentasuna emanez, kontsiderazio zurrun edo burokratikoegien gainetik. Oinarrizko errentak eskubide subjektiboa izan behar du eta bermaturiko prestazioa; eta ahal bezain laster ordaindu behar da, behar diren geroko ikuskapen eta berrikuspenak ezertan kendu gabe.

Gainera, oinarrizko errentaren prestazioarekin batera, prestakuntza programak eta laneratzeko programak egin behar dira, hartzaileei lan-merkatuan berriz sartzen laguntzeko.

Bestalde, azpimarratu beharra dago efizientzia ekonomikoa eta babes soziala uztartu egin behar direla, neurri zehatzen bitartez.

Prestazio publikoekin batera, modu arin, efiziente eta kalitatezkoaren bitartez, enplegu zerbitzu publikoak indartu eta kudeatu behar dira. Zerbitzu horien xedea izanen da langabezia dauden pertsonak edo beren egoera hobetzea bilatzen dutenak, daukaten kualifikazioaren arabera, berriz lanean hastea eta haiei prestakuntza ematea. Horrek eskatzen du enplegu zerbitzuek ahaleginak egitea beren kudeaketa administratiboa hobetzeko, bai enplegu-eskaintzak zabaltzeari dagokionez, bai langabetuei prestakuntza emateari dagokionez ere. Gainera, gomendagarria izanen litzateke enplegu zerbitzu publikoak ingurune ekonomiko eta sozialaren bilakaeraren eta gizarteak esleitzen dizkien eginkizun berrien arabera egokitzen jarraitzea; horretarako,

izan ere, behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak eman beharko zaizkie.

Ez dugu ahaztu behar, ezta ere, jarduera ekonomikoaren mantsotzea eragin berezia izaten ari dela populazioaren sektore ahulenean, ezgaituengan eta gizarte-bazterkeriaren arriskua duten beste pertsona batzuegan. Sektore horiei, izan ere, babes berezia eskaintzen die Espainiako Konstituzioak. Horrek eskatzen du administrazio publikoek neurri jakin batzuk bultzatzea; esate baterako, kontratu publikoen erreserba bat egitea entitate sozialentzat, kontratu publikoei buruzko araudian ezarrita dagoenaren arabera, edo ezgaitasuna dute pertsonentzako berariazko programa sozial eta lanekoak egitea.

Administrazio publikoaren babesak autonomoen araubide berezian dauden langileak ere hartu beharko ditu, berariazko neurrien bitartez; izan ere, krisialdiak kolektibo horrengan izan duen eragina bereziki gogorra izan da Espainia osoan.

### **Seigarrena. Enplegu-erregulazioko espedienteen gaineko kontrola areagotzea.**

Beharrezkoa da Administrazioak kontrol zorrotzenak egitea enplegu-erregulazioko espedienteen onespén administratiboa emateko garaian, zertarako eta espediente horien azpian egon daitezkeen arrazoiak sakonki ezagutzeko. Horrenbestez, irizpide zorrotzak aplikatu beharko lirateke, langile publikoek eta agintariek alde aurretik ezagutu beharrekoak, profesionaltasunez, inpartzialtasunez eta objektibotasunez jokatzeko, kasuan kasuko egoeraren arabera. Horrela, saihestuko litzateke enplegu-erregulazioko espedienteak bidegabeko kaleratzeak gauzatzeko tresna bat izan daitezen.

### **Zazpigarrena. Administrazioek gogoeta egitea orain arteko ekoizpen ereduari egin beharreko aldaketan gainean.**

Administrazio publikoek gogoeta egin beharko lukete orain arteko ekoizpen ereduari buruz eta pizgarriak eman beharko lituzkete bideragarria eta

iraunkorra ez dena abandonatzeko. Beharrezkotzat jotzen da aurreko ereduan baliagarriak izan diren sektoreen jarraipena eta hobekuntza laguntzea eta sektore berri indartsuen edo gorabidean daudenen hazkunderako laguntza bultzatzea.

Azaldutakoaren ildotik, nahigabeko ondorioak eragin dituen ekoizpen ereduaren alderdi bat zenbait udaletan –bereziki kostaldekoetan– jarraitutako hedapeneko hirigintza-joerei dagokiona da; izan ere, joera horiek eremu batzuetan onura ekonomiko handiak eta merkatuan ere mugimendu handia eragin badituzte ere, erakutsi dute denborazko horizonte eskasa dutela eta epe luzean ondorio negatiboak dituztela, zeren eta higiezinaren merkatuak hondoa jo baitu, plusbalioen, lanpostuen eta hirigintzari loturiko zerbitzu-enpresen desagertzea sortuz, eraikuntzaren gerarazteak berekin arrastaka ekarritako ondorioez gainera. Horrenbestez, egindako akatsetatik ikasi behar dugu, aplikatzekoak diren arauak, higiezinaren merkatuari eta hirigintza-hazkundera behar zaien errespetuaren bitartez, nahi den oreka ekonomiko eta soziala aurki dezagun. Horretarako, hirigintzaren arloko diziplina erreal eta zorrotza behar da.

Merkatu lehiakorra behar da sektore guztietan, lehiakortasunaren defentsarako arauak beteko dituen, eta behar den kontrapartida edukiko duena: guztientzako zerbitzu eraginkor eta kalitatezkoa behar den sektoreetan, gizarte bazterkeria saiheste aldera.

Halaber, beharrezkotzat jotzen da deuseztatzea zerbitzu publikoetan benetako barneko merkatua osatzea eragozten duten, lehiakortasuna astunago egiten duten eta eskainitako zerbitzuen kalitatea kaltetzen duten oztupoak. Horren xedea da kalitatea eta langileen, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak defendatzea, baina enpresei proportziorik gabeko trabak ezarri gabe. Horretarako, proposatzen dena da behar ez diren oztupoak deuseztatzea, prozedura administratiboak erraztea eta zerbitzuen erabateko kalitatea sustatzea.

**Zortzigarrena. Lan arloko eta lehiaketaren arloko legedia berraztertzea.**



Adituek iradoki dute ezen, lan arloko legediari dagokionez, eragile sozialei entzun ondoren, legedia berraztertu eta, kasua bada, legedia berria proposatu beharra dagoela, XXI. mendeko globalizazioa aintzat hartuta; legedia horrek, langileen eskubideak eta enpresaburuaren ahalmenak murriztu gabe, aztertu egingen ditu enplegua sortzeko Europar Batasuneko beste estatu batzuetan aurrera eramán diren esperientziak, eta honakoak bilatuko ditu: lan-kontratazioa erraztea, beharrezkoa bada, enpleguaren aldi baterakotasuna eta behin-behinekotasuna gutxitzea eta behar diren erreformak egitea kalitatezko enplegua eta lanaren eta enpresen arloko egonkortasuna indartzeko. Proposamen horiek eragile sozialen eta administrazioaren arteko negoziatioaren esparruan egin beharko liriateke.

Era berean, egokitzat jotzen da lehiaketan arloko legedia aldatzea, kontuan hartuta pertsonen eta familien fede oneko kaudimen gabeziako egoeretatik eratorri ohi diren arazoak; eta egokitzat jotzen da, halaber, erantzun egokia ematea Administrazioaren eta epaitegien erabakimenaren eta kontrolaren menpean. Izan ere, erantzun horren bidez, betebeharrak aintzat hartuta, bidea emanen zaie ukitutako pertsonen beren eta beren familien gutxieneko premiak estaltzeko, beren ondarean, beren osasunean eta beren duintasunean eragina izan lezakeen enkante-prozedura batera jo behar izan gabe.

Halaber, egiaztatzen da merkataritzaren arloko epaitegietan arazo handiak agertu direla, lehiaketa prozesuek izugarri egin dutelako gora. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da organo judizial horiek behar bezala hornituta egotea, beren eginkizuna eraginkortasunez eta azkartasunez bete dezaten.

### **Bederatzigarrena. Defizit publikoa gutxitzea eta gastu publikoaren austeritatea**

Gastu publikoaren hazkundera administrazio publikoek nekez onar dezaketen defizit publikoa eragiten ari da. Horrek eskatzen du defizita gutxitzeko planak egitea, eta plan horietan austeritate irizpideak jasotzea.

Estatuko, autonomia erkidegoetako eta administrazio publikoetako aurrekontu orokorrek, aurretik azaldutakoaren ildotik, irizpide zorrotzekin eta ahal den guztian doitutakoekin sortu beharko dira, eta austeritatez egin eta aplikatu beharko dira. Aurrekontu orokorrak elikatzen dituzten diru-sarrerak gehien bat zergadunen ekarpenei zor zaizkie, eta behar adina justifikatuta dauden helburu eta premia kolektiboei erantzuteko erabili behar dira, lehentasuna ematez gastu sozialari eta aberastasuna sortzeko edo mantentzeko inbertsio publiko edo pribatuei. Hori guztia estatu sozialean murrizketarik egin gabe.

### **Hamargarrena. Administrazio publiko efiziente eta kalitatezkoaren eredu baterantz.**

Defizit publikoa gutxitzeari buruz eta aurrekontu publiko zehatz eta zorrotzak –beharrezkoa ez den gastu publikoa saihestuz– egiteari buruz arestian egin ditugun gogoeten ondorioz, galdetu beharko genuke ez ote litzatekeen komenigarria izanen eztabaida lasai bat egitea maila bakoitzeko administrazio publikoaren ereduari buruz: zein neurri hartu behar dituzten beren gain administrazioek bereki gisa eta zein lehentasun mailarekin, zein bitarteko behar dituzten, zein giza baliabide eduki behar dituzten, eta nola lortu beharko luketen ahal den efizientziarik handiena politika publikoetan eta zerbitzu publikoak ematerakoan, bai estatuko Administrazioari dagokionez, bai administrazio autonomiko eta lokalei dagokienez ere, azken kasu horretan zerbitzatzen duten populazioari erreparatuta, betiere.

Bilatu beharko litzateke administrazio moderno, arin, azkar, gaitasuna duena, ez hain hertsia eta tamainaz txikiagoa edukitzea, herritarrengandik hurbilago egonen litzatekeena, burokrazia gutxi izanen lukeena, arimaduna, efizientea, zuzena eta gardena. Administrazio horrek zerbitzu publikoei buruzko kalitate adierazleak edukiko lituzke, irizpide ebaluagarriekin kudeatuko litzateke eta gastu arruntean aurreztuko luke. Hori guztia herritarren eskubideak eta bermeak guztiz errespetatuta. Administrazio horrek, halaber, enpresen sorrera edo garapena oztopatzen duten, lehiakortasuna gutxitzen duten eta kostuak dispartzen dituzten izapide administratiboak kendu edo gutxituko lituzke, eta,

gainera, bere zorrak epe laburretan ordainduko lizkieke hartzekodunei (hogeita hamar egun, arau orokor gisa).

Gainera, honakoen gisako neurri zehatzak hartu behar dira: a) errealismoz planifikatzea administrazio bakoitzean behar diren giza baliabideak; b) zuzendari profesionalen sistema arautu eta antolatzea; c) langileak hautatzeko sistemari arintasun handiagoa ematea, uneoro merezimendua, gaitasuna eta publizitatea bezalako printzipioak aintzat hartuta; d) karrera horizontalak ezartzea, lanen ebaluazioan oinarrituta; edo e) zerbitzuaren balioak sustatzea, gobernatzen dutenen ereduarekin. Hori guztia enplegatu publikoaren estatutua erregelamendu bidez behar bezala garatzeko esparruaren barruan.

### **Hamaikagarrena. Oinarrizko konstituzio eskubide batzuen bermea.**

Krisialdi ekonomiko eta sozialeko une hauetan, beharrezkotzat jotzen da osasunarekin, hezkuntzarekin, kolektibo behartsuenen arreta sozialarekin eta etxebizitzarekin loturiko konstituzio-eskubideak bermatzea, halako moduan non aurrekontu-murrizketek ez duten haiengan eraginik izanen.

Sektore sozialean, zehazki, administrazio publiko eskudunek honakoak bermatu beharko dituzte: a) "Menpekotasunaren Legea" izenaz ezagutzen dena modu efektiboagoan eta azkarragoan aplikatzea, legeak aurreikusitako laguntzak eta baliabideak ezarritako epeetan baliatu ahal izateko. b) kolektibo behartsuenentzako (besteak beste, adinekoena dago) ekipamenduen plangintza eta exekuzioa, egoitzetan eta arreta-zentroetan egin beharreko inbertsioen bitartez; eta c) "hirugarren sektorea" deitutakoa sustatzea; hau da, irabazi asmorik gabe, laguntza sozial neurtezinezko ehundura osatzen duten erakunde eta entitateak, zeinak oso prestatuta baitaude krisi garaiak gainditzeko.

### **Hamabigarrena. Zerga-sistema zuzen eta progresiboa.**

Espainiako Konstituzioak 31.1 artikuluan zerga-sistema zuzen bat exijitzen du, honako printzipioak beteko dituena: orokortasuna, berdintasuna, progresibotasuna eta konfiskaziorik eza.

Gomendagarria litzateke administrazio publiko eskudunek gogoeta egiteko epe bat zabaltzea modu guztiz efizientean bermatzeko arestian aipatutako justiziaren eta progresibotasunaren printzipioak, zuzeneko eta zeharkako zergen arteko banaketari eutsita.

Ilido beretik, eta BEZaren igoera ikusita, komenigarria litzateke premiazko gauzetan eta zerbitzuetan zergaren tipo murriztuari eustea; are gehiago, komenigarria litzateke hura ezaugarri horiek dituzten ondasun eta zerbitzuetara zabaltzea, nahiz eta gaur egun tipo horren aplikazio esparruan ez dauden.

Halaber, komeni da gogoeta egitea epe luzeko aurrezkiaren fiskalitateari buruz.

Halaber, fiskalitatea onuragarriagoa aldeztu beharko litzateke etxebizitzaren alokairuan, eta ohiko etxebizitza erosi eta zaharberritzeko kenkariari eutsi beharko litzaioke.

### **Hamahirugarrena. Toki entitateen finantziarioa.**

Toki administrazioak lehenengo lerroan ari dira pairatzen krisialdi ekonomikoaren eraginak. Gizarte zerbitzuetan ikusten da hori bereziki, horretan babes finantzarioa beharrezkoa baita.

Udal finantziarioari dagokionez, garrantzitsua da kontuan izatea hura, neurri handi batean, eraikuntzaren eta hirigintzaren menpean egon dela. Hori, izan ere, ez litzateke errepikatu behar. Udalen diruetan gaur egun dagoen egoera dela-eta, zorpetze arazoak sortzen ari dira, herritarrekin eta enpresa txiki eta ertainekin alderatuta. Udalen finantzaketa sistema berria planteatu beharko litzateke, gisa horretako arazo eta abaguneak deuseztatzeko eta toki entitateei beren eskumenei erantzutea bideratzeko.

### **Hamalagarrena. Ezkutuko ekonomiaren aurkako ikuskapenak. Lan-iruzurraren eta zerga-iruzurraren aurkako ikuskapenak.**

Administrazio eskudunak jarraitu beharko du, bere baliabideen neurrian, ezkutuko ekonomiaren edo ekonomia irregularraren aurkako lan ikuskapenak areagotzen.

Gomendatzen dugu zerga-iruzurraren aurkako planak prestatzea eta aplikatzea. Horren helburua izanen litzateke detektatzea, orain arte egin den bezala, zergadunek zerga-betebeharretatik errazago alde egiteko jarduera ekonomikoko sektoreak.

### **Hamabosgarrena. Azpiegituren eta ekipamenduen plan publikoak.**

Ekonomia sustatzeko eta azpiegitura nazionalak modernizatzeko plan publikoak egitea beharrezkoagoa ematen du Espainiak Europar Batasuneko azpiegitura-funtsetarako duen sarbidea nabarmen gutxitu denean, aurreko garaiekin eta krisialdiekin alderatuta, Espainiako lurraldearen zatirik handienean.

2010ko ekitaldirako eta hurrengo ekitaldietarako toki entitateetan inbertsio-jarduerak egiteko Tokiko Inbertsio Funtsak (E Plana) mantentzeaz gainera, horrelako neurriak arrazionalizatu eta zuzendu beharko lirateke, obrak eta ekipamenduak ez ezik, beste arlo batzuetako gaiak ere jorratzeko; besteak beste, ingurumena, gizarte gaiak, hezkuntza, kultur ondarea, arkitektura-oztopoak kentzea, teknologia berriak, ikerketaren sustapena, energia berriztagarriaren arloko aurrekia, administrazio elektronikoa eta interes orokorreko beste xede batzuk, toki entitateek egin beharreko inbertsioak ezertarako ere kendu gabe.

### **Hamaseigarrena. Finantza-sistema berregituratzeko laguntza.**

Europako Batzordeko lehendakariordeak azaldutakoaren ildotik, administrazio eskudunak urgentziaz finantza-sistemaren berregituratzea sustatu eta orientatu beharko luke, sistema horrek epe ertain eta luzean behar duen bideragarritasuna berreskuratzeko, hain zuzen ere ekonomia errealaren finantzatzaile gisa duen betebeharra laguntza publikoen premiarik gabe bete dezan. Enpresa bideragarri askoren –eta enpleguaren– biziraupena kreditua lortzearen baitan dago. Beharrezkoa dirudi Administrazioa finantza-sistema indartsua eta kaudimenduna lagundu eta orientatu dezan, sistema horrek kanpoko finantzaketa bidera dezan eta zor handiena eta arrisku gehien dituzten sektoreen arazoari konponbidea eman diezaion.

Halaber, finantza-entitateen gaineko kontrol publiko handiagoa behar da, eta finantza- eta banku-jarduera kontrolatzeko organismo publikoen (Espainiako Bankua) autoritatea sendotu behar da.

Finantza Sistemaren Erreformatarako Neurriei buruzko azaroaren 22ko 44/2002 Legeak, Finantza-zerbitzuetako bezeroak defendatzeko ordezkarien erregelamendua onesten duen otsailaren 20ko 302/2004 Errege Dekretuak eta Ekonomia ministroaren Finantza entitateetako bezeroarentzako arreta-departamentuei eta -zerbitzuei eta bezeroen defendatzaileei buruzko martxoaren 11ko 734/2004 Aginduak ezartzen duten bezala, ezinbestekoa da finantza-entitateen bezeroaren defendatzailea izendatzea herritarren eta finantza-entitateen arteko harremanetan oreka handiagoa lortzeko, horrela saihestuz, batzuetan, bezeroek justiziara jo behar izatea gatazkak ebazteko edo, bestela ere finantza-entitateen jarduera kalifikatuko duen organo independente baten iritzia lortu ahal izateko.

### **Hamazazpigarrena. Erantzukizun sozial korporatiboa laguntzea.**

Administrazio publikoei gonbitea egiten diegu apustu erabakigarria egin dezaten “erantzukizun sozial korporatiboa” deitutakoaren alde, bai sektore publikoan, bai sektore pribatuan.

Horretarako, honakoak egiteko gonbitea egiten da: a) Erantzukizun sozial korporatiboari buruzko lege bat bultzatzea –lege horren izapidetzean, izan ere, Gorte Nagusiek urratsak egin zituzten–; edo bestela, administrazio publikoek erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko eta kudeatzeko planak egin ditzatela; b) kasuan kasuko eskumenen esparruan, bultzatzea daitezela enpresei erantzukizun sozialaren arloan sustapena eta aholkua ematen duten fundazio publikoak; c) indar dadila enpresa publikoek erantzukizun sozialean duten parte hartzea, eta, era berean, administrazio publikoek berek ere parte har dezatela, jarduera ekonomikoaren motorrak baitira. eta d) pizgarri fiskalak edo akuilu ekonomikoak ezar daitezela enpresa publiko eta pribatuentzat, inbertsio jakin batzuetarako sozietateen gaineko zergarekin egiten den bezala, esate baterako.

### **Hemezortzigarrena. Gobernuz kanpoko erakundeei babes ematea.**

Krisialdi ekonomiko luzeko egoeretan, nabarmentzen da Estatuaren baliabideak ez direla nahikoak –batez ere aurrekontuetakoak– harengana jotzen duten kolektibo eta pertsona behartsuenei laguntza emateko.

Horrelako uneetan, gobernuz kanpoko erakundeak mugitzen dira. Erakunde horiek adin guztietako pertsona boluntarioek osatzen dituzte (baita haietara bildu diren adinek pertsonak ere, eredu ederra emanez). Zenbait kasutan, erakunde horiek langabetuei oinarrizko errenta soziala aurreratu izan diete, Administrazioa atzeratu egiten baitzen errenta emateko garaian, eta egoera oso zailean zeuden langabetuei jaten eman diete, eta arropa ere eman diete, eta beste laguntza batzuk emateko aterpeak antolatu dituzte; esate baterako, depresioak edo lana galtzearen ondorioz sortutako beste arazo batzuk dauzkaten pertsonen laguntza eman diete, eta babes-ekintzak antolatu izan dituzte premia zutenentzako merkatu berriak aurkitzeko... Erakunde horiek gizartearen eta administrazio publikoen aitorpena merezi dute, bai eta

administrazio horien laguntza ekonomikoa eta lankidetzak, hitzartutako modalitateen bitartez.

GKEak finantzaketan mozketak pairatzen ari dira, eta ezinezko izaten zaie beren helburuak betetzea bitartekoak falta izatearen ondorioz. Proposatzen duguna da diru-laguntza publikoen ordainketa arintzea eta behar diren kontusailak liberatzea arrazoizko epe batean.

### **Hemeretzigarrena. Krisialdi ekonomikoa eta immigrazioa.**

Immigrante gehien-gehienak legez iritsi ziren Espainiara lan egitera; horietako asko Espainiako nazionalitateko jendeak nahi ez zituen lanak egitera, hain zuzen. Immigranteekin jende gehiago bildu da populazio aktiboaren multzoan, Gizarte Segurantzari kotizatu diote eta hura mantentzen lagundu dute, biztanleriaren jaiotza-tasak igoarazi dituzte... Eta horietako asko une honetan beren herrialdeetara itzultzen ari dira krisialdi ekonomikoaren ondorioz: immigranteak krisialdiaren biktima izan dira gainerako herritarrak bezalaxe edo gehiago; hori dela eta, ezin zaie ezertxo ere egotzi behar krisialdi ekonomikoa dela eta. Izan ere, jatorri globaleko krisialdia da pairatzen ari garena, nazioaren arabera berezitasun batzuk dituen. Are gehiago, immigranteek arrisku bat badute: ezkutuko ekonomia haietatik baliatzea lanerako esku merke edo ezkutuko moduan.

Saihestu beharra dago immigranteak langabeziaren edo lanaren behin-behinekotasunaren “erruduntzat” jotzea, eta horren inguruko xenofobia edo arrazakeria-ohar –zuzen nahiz zeharkako– guztiak errefusatu behar dira. Ez ditugu immigrazioa eta segurtasun eza lotu behar, ezta ere.

Besteak beste, sustatu beharra dago immigranteek enplegu-bulegoek deitzen dituzten prestakuntza ekintzetan parte hartu ahal izatea, haiek eskatzen duten bezala.

Immigrazioa antolatu eta zaindu beharra dago, zeren eta migrazio-fluxuak egoteak populazio dinamiko eta gaztea ekartzea bideratzen baitu, eta lagungarri gertatzen baita biztanleriaren zahartzearen edo jaiotza-indizeen



ondorio negatiboak berdintzeko. Garrantzitsua da hedabideek beren informazioan nabarmentzea immigranteek aberastasun ekonomikorako eta herrialdearen gizarte-ongizaterako egiten duten ekarpena. Onartu ala ez onartu, immigrazioa beharrezkoa da Espainiaren eta espainiarren etorkizuna segurtatzeko.

*Iruñean, 2010eko apirilaren 20an*